ANIMALIA GARBIA ETA SARIA

# BALIO PROPOSAMENA

**Enpresa txiki bat** da, ez dugu produktu bakar  bat eskainiko, baizik eta **zerbitzu desberdinak emango ditugu.** Adibidez, **animaliak garbitu, animaliei ilea moztu eta azkazalak moztuko dizkiogu.** Baita ere, **web horrialde bat edukiko dugu** eta bertan **maskotentzat diren produktuak salduko ditugu**, adibidez, korreak, arropa…



Zerbitzua, **maskota duten pertsonentzat** egongo da zuzenduta, izan ere, gure enpresak ezin izango du maskotarik gabe zerbitzua eman. Baita ere, beraien maskotentzat produkturen bat nahi badute, hala nola, korreak, arropa etab. aukera izango dute erosteko.

Egia da gaur egun animaliak garbitzeko hainbat enpresa daudela, nahiz eta asko ez izan, baina gure enpresari, **besteekin konpetitzeko, berezitasun bat jarri** diogu. Bezeroaren **etxera hurbilduko gara furgoneta preparatu batekin eta bertan beraien maskota garbituko dugu**, horrela bezeroak ez du etxetik mugitu beharko.

## AMIA:

| | | |
|---|---|---|
| | **INDARRAK** | **AHULEZIAK** |
| **BARNE FAKTOREAK** | - Beste enpresen aldean berritzaileak gara (maskotak garbitzeaz gain bezeroaren etxera joango gara beraien erosotasuna bilatzeko).<br>- Errentagarria ateratzen zaie bezeroei. (Bezeroek erosotasuna irabazten dute, denbora aurrezten dute, ez du garraiorik erabili beharko)<br>- Erabiltzen ditugun produktuak hoberenak dira. | - Hasieran inbertsio handia.<br>- Furgonetak eta urak kostu handiak ekarriko ditu.<br>- Egunean zerbitzu asko ezin izango dira eskeini. Ezin ditugu eguneko ordu guztiak aprobetxatu, etxe desberdinetara joan behar garelako eta bidean denbora “galtzen dugulako”. Arazo honi aurre egin behar zaio. |
| | **AUKERAK** | **MEHATXUAK** |
| **KANPO FAKTOREAK** | - Bezeroen herrian horrelako zerbitzurik ez badago, lagundu egingo diogu eta bere etxeraino joango gara.<br>-Beraien maskotak garbitzeko tokirik ez denborarik duten pertsonei etxera eramaten diogu zerbitzua. | - Beste enpresa batzuek gure ideia kopiatu ahal izatea, eta hobetzea. |

**Estrategia:** Gure estrategia, besteengandik desberdinak izatea izango da. Beste enpresaren bat egon ezkero, gure zerbitzu berdina eskaintzen dutena, beraiengan desberdintzen saiatuko gara. Adibidez, beste enpresa batek maskotak garbitu ditzazke, baina guk hori egiteaz aparte produktuak salduko ditugu maskotentzat. Bestalde gure enpresa bezeroen etxeetara joango da eta hori egiten duen enpresarik ez dago hemen inguruan.